

PROGRAMAZIO LABURRA => Arloa: KULTURA ZIENTIFIKOA

Kurtsoa/ Maila: Batxilergo 1.	Ikasturtea: 2018-19	Irakaslea : Ines Genua
-------------------------------	---------------------	------------------------

OINARRIZKO GAITASUNAK eta HELBURU OROKORRAK

BON (24/2015 Foru Dekretua eta 46/2015 Agindu Forala)

IKASGAIAREN BANAKETA: 3 ordu astean UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

*** unitate bakoitzari esleituriko saio kopurua malgutasunez hartu behar da*

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Edukin multzoak	saioak	Edukin multzoak	saioak	Edukin multzoak	saioak
1. Lan prozedurak	12	3.Aurrerapenak biomedikuntzan	24	5.Teknologia berriak komunikazioan eta informazioan	16
2. Iraultza genetikoak	24	4. Lurra eta Bizia	24		

metodologia:

--Ikerketa-proiektuak izango dira lan metodo nagusia irakaslearen jarraibideetan oinarrituta proposaturiko gai bati buruz informazio bilatu eta txosten zientifikoa burutu (power-point formoan nagusiki), gero talde osoari azaltzeko eta haien balizko galdereei erantzunak eman

- IKT erabilera: animazioak, simulatzaileak, eta bestelako baliabideen erabilpena

-Plataforma digitalaren erabilera : google classroom erabiliko dugu.

- Ulermen eta adierazpenaren garapena: testuak eta artikulak irakurri, komentatu eta hausnartu eta modu kritikoan defendatu edo errefusatu.

baliabideak

- testuliburua: EZ DAGO

irakasleak bideratutako unitate didaktiko bakoitzeko zenbait material: apunteak , txostenak, power-pointak, aurkezpenak, , eskemak ..

baliabide digitalak: Ikasleek Classroom plataforma digitala erabiliko dute pilpilean dauden gaeikin loturiko filmak,, dokumentalak,..

aldizkari zientifikoak, egunkarietako artikulak,

EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

Ebaluatzeko garaian kalifikazioa eman ahal izateko honako hiru atalak kontutan hartzen dira:

- edukiak => ikasleak lorturiko edukinen jabetza-maila frogatu objektiboen bidez neurtuko da: azterketak idatzikoak zein ahozkoak egin daitezke.
- prozedurak eta lana => ikasleak lorturiko prozedura-mailak , banaka edo taldeka buruturiko atazak, lanak, ariketak, jarduerak, txostenak, buruturiko ikerketa proiektua (gelakoak, etxeakoak,ekintza osagarriak, , bestelakoak...)
- jarrera => ikasleak agertzen duen jarrera eta jokabidea klasean , jarduera osagarrietan edo txangoetan. Irakaslearen jarrerak taldearen irakas-prozesuan egokia izan behar da, honela ez balitz

kalifikazioan modu negatiboan islatuko da.

Errespetu faltak irakaslearekiko zein ikasleekiko , irakaslearen adierazpenak eta irakas-prozesua edozein modutan oztopatzea, ikastaldearen lan-dinamika apurtzea , telefono mugikorraren erabilpena eta orohar klasean edozein jarrera desegokia sortzea ikaslea kanporatzeko kausa izango da. Neurri hau klaseko irakas-prozesua normaltasunez eta baldintza egokietan ematea partaide guztien eskubidea bermatu ahal izateko hartuko da.

Ikasle baten kanporaketa izatean eta /edo jarrera desegokia izatean ebaluazioaren kudeaketan jarrera atalean D kalifikazio bezala islatuko da . Bigarren kanporaketa ebaluazio berberan izatekotan jarrera atalean E kalifikazio bezala islatuko da.

EBALUAZIO TRESNAK ETA ZUZENKETA IRIZPIDEAK

Hona hemen ebaluatzerakoan erabiltzen diren tresnak eta irizpideak:

- azterketak: ulermen-maila eta adierazpenaren koherentzia, , zehaztasuna, ordena eta egitura zuzena azalpenetan, eskaturikoarekiko erantzun maila, ortografia , lexiko zientifikoaren erabilera , eskemak eta marrazkiak egitea,.
- ikaslearen lana eta prozedurak: txostenak, ariketak , jarduerak eta buruketak: egokitasuna ,betetze-maila , zehaztasuna, sorkuntza maila, : deskribapenak eta azalpenak, lorturiko emaitzak, ondorioak, grafikoak, taulak, argitasuna, antolamendua eta zehaztasuna .
- Zehazki ikerketa proiektuetan : aurkeztutako lanaren formatoa (edukien egokitasuna, irudien balioa, islatutako sormena) eta azalpena (argitasuna, jariahortasuna) baloratuko dira.
- jarrera: irakaslearekiko, bai ikaskideekiko errespetua eta begirunea , arreta, parte-hartzea, eskaturiko lanak , atazak edo bestelako jardueren betetze-maila, interesa , euskararen erabilera, materialaren erabilera , klasera etortzea ..

KALIFIKAZIO SISTEMA

A) Ebaluazioan kalifikazioa ezartzerakoan irakas-prozesuaren zehar garatutako hiru atal hauek kontutan hartzen dira:

- edukiak
- prozedurak, lanak eta atazak
- jarrera

B) Ebaluazioaren kalifikazioa ezartzerakoan honako ponderazioa erabiliko da:

- edukiak: % 60
- lanak eta prozedurak: % 40
 - jarrera: Ikaslearen jarrerak taldearen irakas-prozesuan egokia izan behar da, honela ez balitz kalifikazioan modu negatiboan islatuko da.

C) Ikasgaiaren ebaluazioan kalifikazio positiboa izateko aurreko atal bakoitzarako kalifikazio positiboa lortu behar da. Ebaluazioa gainditzeko edukin eta prozedura ataletan nota minimoa 5 izan behar da.

D) Jarrera atalean D kalifikazioa duen ikasleak , atal bakoitzeko ponderazioak egin ondoren puntu bat gutxiagoa izango du kalifikazioa ezartzerakoan.

E) Jarrera atalean E kalifikazio duen ikasleak jarrera atala negatiboa dauka, zera ez du gaindituta, beraz ez du ebaluazioa positiboa izango, nahiz eta bestelako atalak gaindituak izan.

F) Ebaluazioaren zehar ikasleak egin beharreko lanak, atazak, ariketak eta txostenak ezarritako epe barruan entregatu behar dira kalifikatuak izateko. Burutu edo entregatu gabeko atazen kalifikazioa 0 da.

G) Hiruileko batean bi azterketa egiten badira edo bi nota lortzen badira haien batz bestekoa egiteko azterketa horietako batean gutxienez 3,7 puntu (hamarren gainean) lortu behar dira.

H) Edozein froga objektibo batean iruzur egiten duenak (kopiatu, hitzegin , txuleta, orri aldaketa , tresna elektronikoak erabili, , .., etab.) ebaluazioan 0 kalifikazioa izango du.

I) Azken ebaluazioaren kalifikazioa ezartzerakoan lortutako hiru ebaluazioen arteko batez bestekoa egingo da ebaluazio guztiak gainditu baldin eta badira.

BERRESKURAPENA

- Ebaluazio bat suspendituz gero, berreskurapen-azterketa hurrengo ebaluazioaren zehar izango da.
- Ebaluazio bakoitzari dagozkion eginbeharreko atazak edo jarduerak ikasleak burutu behar ditu berreskuratzeko azterketa egin baino lehen.
- Berreskurapenaren bitartez ebaluazioan lortzen ahal den nota maximoa 6 izanen da.
- Hirugarren ebaluazioa amaituta oraindik ebaluazio bat gainditu gabe daukan ikasleak, bakarrik horren berreskurapena egingo du ekaineko azkeneko azterketan.
- Hirugarren ebaluazioa amaituta bi edo hiru ebaluazio berreskuratu gabe dituen ikasleak, ikasgaiaren azterketa globala egiteko aukera izango du ekaineko azkeneko azterketan.
- Orduan ere ez gainditezekotan, ekaina amaieran ohiz kanpoko ebaluazioan azterketa globala egin beharko dute ikasleak. Bertan ikasturte osoko edukiak sartuko dira.